

## Alberto Elozegi, "UNICEF" saria

*Euskaldunon Egunkaria*, 1991-12-22: 2.

Alberto Elozegi, abokatu eta kazetari donostiarrak irabazi du aurten Estatuan "UNICEF"ek urtero ematen duen kazetaritzarako saria. Erbesteratu eta euskaltzaleen artean oso ezaguna bada ere ("Paul de Garai" izenordea ere asko erabili du), gaur ez da Euskal Herrian merezi duen hainbat ezaguna. Caracaseko *Momento* aldizkarian urteak egin zituen bere idazlaritzako buru bezala (Gabriel García Marquez taldeko), Venezuelako basamorturik 1964ean emititzen hasi zen 80 Kw.ko "Radio Euskadi-2"ko gionista nagusi izan zen; George L. Steer britaniarraren *The tree of Gernika* gaztelerara (*El árbol de Gernika*) berak itzuli zuen maisuki. Bera izan zen urtetan isilpean zabaltzeko Caracasen egiten zen *Gudari* aldizkari ernaiaren zuzendari; hau izan zen Venezuelako bizimodu eroso utzi eta herriari serbitzeko Londresen kazetaritzako lanak eginez estuasun haundian artean bere familia opatsua, Jone emaztea fidela ondoan, aurrera atara eta Franco hildakoan Ajuriagerraren esanetara Miarritzen lanean jarri zena. Gauza asko da, beraz, gure lagun mina den Alberto Elozegi. Eta orain, mutu jaio zen seme baten operazio zailak urduri dagoen abokatu, kazetari, eta idazleak (*Jesus de Galindezen Biografia* argitara berria duena) Deian argitaratu zuen lan hunkigarri bat dela eta ("Setenta millones de niños viven en la calle") eman diote sari aberatsa. Ez diruz, Albertok ez bait du inoiz dirurik kontatu, baizik eta munduko haurrei laguntzarren euskal abertzale eta unibertsal (ez PSOEko) denak joan den maiatzean idatzi zuena. Zorionak zuei Alberto eta Jone! Zuen euskal abertzaletasuna eta munduaganako dugun erantzukizuna lotzen jakin duzutelako. Eta hau herrian ez bada ere, "UNICEF"ko arduradunak konturatu direlako.